

**“SANCTI SPIRITUS” UDALAREN ZAHARREN EGOITZAKO BEZEROENTZAKO
ARRETA PSIKOSOZIALAREN ETA ARRETA BIOSANITARIOAREN ZERBITZUEN
KONTRATUA ESLEITZEKO DEIALDIA, PUBLIZITATEAGAZKO PROZEDURA
NEGOZIATU BIDEZKOA**

IRAGARKIA

1.- Erakunde esleipen emoilea

Erakundea: Bermeoko Gizarte Ongizaterako Udal Patronatua

Espedientearen tramitatzailerak: Bermeoko Gizarte Ongizaterako Udal Patronatua

2.- Kontratuaren xedea

Zehaztapena: “Sancti Spiritus” Udalaren Zaharren Egoitzako bezeroentzako Arreta Psikosozialaren zerbitzua eta Arreta Biosanitarioaren zerbitzua ematea.

- Arreta Psikosozialaren zerbitzua: Zaharren Egoitzako bezeroen arreta psikologikoa eta dinamizazio soziokulturalaren zerbitzua.
- Arreta Biosanitarioaren zerbitzua: Zaharren Egoitzako bezeroen errehabilitazio, indarberritze eta mantentze fisikoaren zerbitzua.

Burutzeko lekua: Bermeoko “Sancti Spiritus”

Burutzeko epea: Urte bat, 2014ko urtarrilaren 1etik abenduaren 31ra.

3.- Tramitazioa, jardunbidea eta esleipen modua

Tramitazioa: Ohikoa

Prozedura: Publizitateagazko prozedura negoziatua

4.- Kontratuaren oinarritzko aurrekontua: 77.487,00 €-koa da, BEZ kanpo. BEZari dagokion zenbatekoa 6.198,96 €-koa da.

Eskaintzak ordu prezioaren arabera egingo dira. Ondoren zehazten dira zerbitzu bakoitza prestatzeko beharrezko orduak eta ordu bakoitzako oinarritzko prezioa:

- Arreta Psikosoziala zerbitzua: Arreta Psikologikoa eta Dinamizazio Soziokulturala: 7,5 ordu egunean, astelehenetik barikura.
Kontratutako dan zerbitzu hau era honetan bananduko da: Arreta psikologikoa eta Dinamizazio Soziokulturala jardunaldiaren bi zati bardinetan.



Ordu bakoitzako oinarrizko prezioa:

- Arreta Psikologikoa: 26,1 € orduko BEZ barik, BEZari 2,09 € dagokio.
- Dinamizazio soziokulturala: 18,31 € orduko BEZ barik, BEZari 1,46 € dagokio.
- Arreta Biosanitarioaren zerbitzua: Errehabilitazio, indarberritze eta mantentze fisikoa: 7,5 ordu egunean, astelehenetik barikura.

Kontratatu dan zerbitzu hau era honetan emongo da: errehabilitazio, indarberritze eta mantentze fisikoa jardunaldi osoan zehar.

Ordu bakoitzako oinarrizko prezioa:

- Errehabilitazio, indarberritze eta mantentze fisikoa: 18,31 € orduko BEZ barik, BEZari 1,46 € dagokio

5.- **Behin behineko bermea:** Lizitazio prezioaren %3, hau da, 2.324,61 €

6.- **Dokumentazioa eta informazioa eskuratzea**

Lekua: Bermeoko Gizarte Ongizaterako Udal Patronatua

Helbidea: Areilza 4

Heria eta posta kodea: 48370 Bermeo

Telefona: 946179160

7.- **Esleipendunak betebeharreko baldintza bereziak**

Administrazio baldintza zehatzen Agiriko 18. Atalean finkatzen diranak.

8.- **Proposamenen aurkezpena**

Lekua:

- Erakundea: Bermeoko Gizarte Ongizaterako Udal Patronatua
- Helbidea: Areilza 4
- Herria eta posta kodea: 48370 Bermeo
- Ordua: 9:00 – 14:00



* Larunbatetan 10:00 – 13:00 (BERH@Z BULEGOA. Ertzilla
kalea 6-8 48370 BERMEO)

Epea: 10 egunetan lizitazio iragarkia argitatzen danetik hasita.

Aurkeztu beharreko dokumentazioa: Administrazio baldintza zehatzen
orrian zehazten dana.

9.- Esleipena

Eskaintzak aurkezteko epea amaitu eta gero, hilabeteko epean gehienez, Kontratazio Mahaiak epe eta modu egokian jasotako proposamenak jendaurrean irekiko dira, Kontratazio Mahaiak erabakitako egunean. Telefonoz edo faxez emongo jake aurretiaz horren barri lehiatzaileei.

B kartazala zabalduko da arinago (erizpide ez matematikoak) eta, behin puntuatuta dagozanean, C kartazala (Proposamena eta erizpide matematikoak) zabalduko da jendaurrean.

Ondoren, eta, hala badagokio, egoki diran txosten teknikoak egin eta gero, Kontratazio mahaiak esleipena egin behar dauan Kontratazio Organoari pasako deuto esleipen proposamena.

Esleipena egiterakoan, honako irizpide hauek hartuko dira oinarritzat:

1. Eskaintza ekonomikoa: 30 punturarte baloratuko da. Alderantzizko hiruko erregela erabiliko da diru proposamenean.
2. Zerbitzua gauzatzeko proposamen teknikoak: Enpresak agiri tekniko baten bidez kontratatu nahi dan zerbitzuaren proposamena 50 punturarte baloratuko da. Gutxienez 25 puntu lortu beharko dira. (Proposamen teknikoa, Bermeoko beharrian eta errealitatearen arabera izan beharko da. Txosten honek, ekintza, esku hartze eta sare sozialarekin egingo dan koordinazioa azaltzen dauan programa zehaztua euki behar dau).
3. Zerbitzuaren hobekuntzarako proposamenak: Atal honetan zehaztu diran zerbitzuei buruzko hobekuntzetatik aparte, enpresak agiri tekniko baten aurkeztu dauzan bestelako hobekuntza bakoitzagaitik 5 puntu, gehienez 20 puntu (proposamenak zerbitzuren hobekuntzarako izan behar dira).

Bermeon, 2013ko urriaren 3an

